

Zaintzara emandako enplegu eta lan guztiak prekarioak dira...

Zaintza lanetara emanda dauden enplegu eta lan guztiak prekarioak dira prekarietate indizearen arabera.

- **Etxeko lanek** (lan erreproduktiboa) inolako **aitortza sozial zein ekonomikorik gabe** jarraitzen dute.
- **Etxeko langileen oinarrizko soldata** Langile Estatutuak zehazturiko 1.080 €-koa da. **Gutxieneko soldataren azpitik** egoteaz gain, sektore horretako langileen **egoera prekarioa, irregularra/ ilegala eta oinarrizko eskubideen aurkakoa** dela azpimarratu nahi dugu.
- **Helduen egoitzetako langileen batez besteko soldata** ere (1.444,74 €) KPI-aren arabera eguneratu dugun **Gutxieneko Soldataren azpitik**. Lan Hitzarmen Estatala duten emakumeena* are baxuagoa da (1.061 €).
- **Etxez etxeko zerbitzuan** ere **prekarietatea da nagusi**.


Zaintza lanetan emakumeei* inposatzen zaie ardura nagusia

eremu pribatuan
etxeko zaintza eta lanen

%67,2

emakumeek* egiten dituzte

ETXEKO LANAK SEXUAREN ARABERA BANATUTA, (EAE 2018, %)




Emakumeak* lanaldi bikoitzak egitera behartuak daude

etxetik kanpo enplegua duten gizonen


%82ak

ez dute inoiz etxeko lanik egiten

BIZTANLERIA AKTIBOA, NORMALEAN ETXEKO LANAK EGITEN EZ DITUZTENAK (2018 EAE, %)



...aldiz, zaintza lanek Hego Euskal Herriko BPG-arekiko %25,75eko pisua dute



BPG SEKTOREKA, LAN ERREPRODUKTIBOA ETA ZAINTZA KONTUTAN HARTUTA (2020, EAE)


Zaintzari emandako enplegua feminizatua dago

Etxetik kanpoko zaintza enplegetako langileen

%80,5a

emakumea* da

ERREGIMEN OROKORREAN AFILIATURIKOEN ARTEAN ZAINTZARA DEDIKATUTZEN DIREN LANGILEAK 2012 - 2020




Zaintza lan ez ordainduen bidez, kapitalak doako langileak eskuratzen ditu

Lan bila ibili gabe etxeko lanetara emanda dagoen herritarren

%88a

emakumea* da.



LAN BILA EZ DABILTZAN ETA ETXEKO LANERA EMANDA DAUDEN HERRITARRAK (EAE 2018, %)

Aitortza sozial zein ekonomikorik gabeko lan horiek ordainduko balira

3.611.929.440 €ko

balioa izango lukete.